

Bederatzi adimen, hamaika aukera

Hezkuntzarekin lotura dituzten artikulua eta iritzi asko iristen zaizkigu; berrikuntza, metodologia berriak, irakasle-ikasle rol aldaketa, emozioek ikasketa prozesuan duten garrantzia... denetarik irakurri dezakegu.

“Bederatzi adimen, hamaika aukera” ekimen honek ikastetxeko Proiektu Pedagogikoaren oinarriak aurkeztu eta darabilgun metodologia erakustea du helburu.

Ezagutzen dugun eskola aldatu beharra dago, garai zaharren beharrei erantzuten baitie. Hezkuntza bera aldatu beharrean dago. Asko dira informazioa azkar lortzeko iturriak, eta etengabeko aldaketan bizi gara... Gaur egun, “zer” erakusten dugun ez da horren garrantzitsua, edukiak aldatzen doaz eta. Gure ikasleek erraminta berriak eta ikasteko gogoia behar dituzte. Guk ezagutuko ez dugun etorkizuneko helduak izango dira haiek **(F. Tonucci)**.

Eskolan, ikasleek, “nola” lan egin ikasi behar dute, eta horretarako, hezitzaileon rola ere aldatu egin behar da, gure ikasleen gaitasunak kontuan hartu eta haien onena emateko “laguntzaile” bihurtu behar baikara.

Ezagutzen ez dugun gizartean ahalik eta hoberen egokitu ahal izateko, balore hauetan prestatzea funtsezkoa da:

- Giza abileziak elkarrekin bizi, lan egin eta disfrutatu ahal izateko
- Autoezagutza: norberaren gaitasun eta mugak ezagutu
- Malgutasuna, egokitzapen ahalmena
- Sormena, iritzi propioa, gaitasun kritikoa
- Proiektu bat aurrera eramateko gaitasuna
- Erantzukizuna eta autonomia
- Teknologia Berrien ezagutza eta erabilera egokia
- Norberaren kultura, hizkuntza, identitatea... ezagutu eta baloratu
- Kulturantzatasunarekiko jarrera baikorra izatea
- ...

Azken urte hauetan ere, Neurozientzia Hezkuntzan egiten ari den ekarpenak oso baliagarriak izaten ari da, horien artean, ikasle zein irakasleen emozioek ikaste-irakaste prozesuan duten garrantzia. Emozio batzuk oso lagungarriak dira eta beste batzuk, berriz, blokeatu egiten dituzte.

Adimena edo adimenak

Urteak dira honakoaz ohartu ginela: ikasleek ikasteko eta ikasitakoa barneratzeko modua eta eritmo desberdinak behar dituzte. Egoera honek hausnarketa sakona planteatu zigun irakasleoi eta irakasteko modua egokiaren bila jarri gintuen.

Adimen hitza horrela itzuli dezakegu: gauzak *ulertzeko ahalmena*, aukera desberdinen artean onena *aukeratzeko gaitasuna*, arazoak eta zailtasunak *konpontzeko gaitasuna* eta testuinguru desberdinetarako baliagarriak izan daitezkeen produktuak *sortzeko ahalmena*.

Howard Gardnerren Askotariko Adimenen Teoria

Howard Gardnerrek, beste autore batzuekin batera, hala nola, **Thomas Armstrong** edota **Daniel Goleman**, adimena ikuspegi bakar batetik kontuan izatea kritikatzeko dute. Bere ustetan, gizakiaren ezagutzak ahalmen orokorrak hartu beharko lituzke kontuan.

Horrela definitzen dute adimena: “arazoak konpontzeko ahalmena edo testuinguru desberdinetarako baliagarriak diren produktuak sortzeko gaitasuna”. Ikuspegi honek honako ideia du oinarritzat: pertsona guztiek gaitasun eta faktore biologiko, bizi-baldintza eta giza-baliabide zein baliabide-material desberdinak ditugu, eta ondorioz, ikasteko modu desberdinak.

Orokorrean, pertsonok eremu kognitibo bakoitzean, adimen desberdinetan, konpetentzia maila desberdinak gara ditzakegu. Hau da, adimenen garapena, eskaintzen diren aukerak eta nola aprobetxatzen ditugun aukera hauen menpe dago. Horrela pertsonok ez ditugu adimenak bakarrik garatuko, baizik eta trebeak ere bilakatuko gara.

Askotariko Adimenen Teoriak kurrikulumeko edukiak ikasleak garatuen dituen adimenen arabera antolatzeko aukera ematen digu, eta bide batez, hain sendo ez dituen adimenetan hazteko aukera ematen du.

Adimenek Konpetentziekin duten erlazioa

Gaur egun, hezkuntzak ezagutza bereganatzeaz gain, hainbat esparrutan *pertsonaren garapen integrala eta harmonikoa lortzea nahi du: fisikoa, motorikoa, kognitiboa, afektiboa, soziala, emozionala eta transzendental*. Honi zuzendua izan behar dira eskaini beharko diren ikaskuntzak eta Derrigorrezko Hezkuntza bukaeran lortuta izan beharko dituzten konpetentzien oinarriak jarri.

Konpetentziek “egiten jakitea” suposatzen dute, hau da, aplikatzen den ezagutza, prozedurak eta jarrerak ere kontuan hartzea. Konpetentziak garatu heinean, ikasleak eskolan izaten dituzten ikasketei esker gizartea hobeto ulertu eta parte hartzeko aukera izango dutela jabetuko dira.

Ikasle trebeak lortzeko, euren bizitzarekin lotura ahalik eta gehien duen ikasketa-mota jaso behar dute, bizi dituzten egoerak ikasitakoarekin erlazioa ditzaten.

Pertsona trebeak honako ezaugarriak dituela esan dezakegu:

- ekintza edo lan bat egiteko behar diren orientabideak ulertzen ditu.
- ahoz eta idatziz adierazpen ona du.

- ikasitakoa hainbat egoeratan aplikatzen ikasi du.
- bere ikasketa antolatzeke ahalmena badu.
- talde lanean aritzea gustatzen zaio.
- autonomia da.
- bere autoestimua ona da.
- ikaskideei laguntzea gustoko du.
- kritikoa da.
- beste pertsonaren lekuan jartzen badaki.
- sortzailea da.
- beste emozioak kudeatzen badaki.

Konpetentziak geureganatu ditzakegula eta ikasi behar dugun zerbait direla presente edukitzea oso garrantzitsua da irakasleontzat eta kontuan hartu beharrekoa geletan eta eguneroko lanetan.

Konpetentziak eta Adimenak ez dira gauza bera baina oso erraz erlaziona ditzakegu. Konpetentziak Askotariko Adimenak garatuta eta praktikan jarriak direla esan dezakegu.



Hizkuntzetarako eta Logiko-matematikorako Adimenak izan dira eskoletan gehien landu izan direnak. **Howard Gardnerrek 1983** urtetik aurrera argitaratu dituen liburuetan inteligentzia hainbat alorretan banatuta dagoela defendatu du, burmuineko hainbat gunetako neuronak inplikaturik daudelarik. Zortzi inteligentziak edo inteligentziaren zortzi kategoria edo dimentsio sailkatu zituen. Aipatu ditugunaz aparte, *espazio-ikuste adimena, gorpurtz-kinestesikoa, musikalakoa, intra e interpertsonala eta naturarekiko adimena*. Egun, adimen *espirituala edo transzendentalari* buruz ere hitz egiten da, edota hamargarren bati buruz, *adimen pedagogikoa* dena. Gure kasuan **bederatzi adimenetaz hitz egin dugu hasieratik, adimen espirituala kontuan hartzen baitugu.**

Oso labur aipa ditzakegu, beste momentu batzuetan banan-banan garatuko baititugu:



1. Adimen logiko-matematikoa. Logika eta matematikaren laguntza behar duten problemak ebazteko behar den adimena. Erlazio abstraktuak ulertzeko gaitasuna

2. Giza-hizkuntzetarako adimena. Ahoz ondo komunikatzeko gaitasunari lotuta dago, batez ere. Kultura idatzia ere badaukaten inguruetan, idatziz ondo komunikatzeko gaitasunari ere egingo dio erreferentzia.





3. Espazio-ikuste adimena. Espazioaren dimentsioak irudikatzeko adimena. Espazioaren hiru dimentsioak, mugimenduak, lastertasunak, espazioan mugimenduan dauden hainbat elementuren arteko erlazioak-eta irudikatzeko adimena.

4. Adimen Gorputz-Kinestesikoa. Bere gorputza oso ondo menperatzen duten pertsonak. Adimen hau oso garaturik daukaten pertsonak bere gorputza mugitzearekin zerikusia daukaten kontuak ikasteko gaitasun handia erakutsiko dute.



5. Musikarako Adimena. Doinuak eta erritmoak identifikatzeko, erreproduzitzeko nahiz sortzeko behar den adimena. Historiako musikaririk handienek erakutsi zuten adimena.

6. Adimen Intrapertsonala. Norberaren burua ezagutzeko eta kudeatzeko adimena. Pertsona barruko adimena edo pertsona-barneko adimena. Autoestimua, autokonfiantza eta emozioen kudeaketa



7. Adimen Interpertsonala. Pertsonen arteko harremanetarako adimena. Enpatia handikoak pertsonak. Besteekiko harremanetarako erraztasun handia daukaten pertsonak oso garatuta daukate inteligentzia mota hau. Giza-harremanak enpatia.




Azkeneko bi hauek **Adimen Emozionala** osatzen dute. Honek norberak bere bizitza era egokian gidatzeko ahalmena eragiten du. Adimen emozionalak pertsona batek era orekatuaz emozioak adierazteko eta besteenak ulertzeko trebezia biltzen ditu.



8. Naturarekiko Adimena. Naturan dauden elementuekin (izaki bizidunekin batez ere) harreman onak lortzeko adimena. Naturan dauden harreman sareak ulertzeko adimena.

9. Adimen Espirituala. Adimen intrapertsonala oinarri hartuta haratago joateko aukera eskaintzen duen adimena da. Norbere burua ezagutu ondoren, transzendentziarekin harremanetan jartzeko bideak irekitzen ditu. Bere baitan ezagutza mota desberdinak landu daitezke: erlijiosoa, mistikoa, profetikoa, sinbolikoa, ontologikoa, metafisikoa, soziala, emozionala eta etikoa.



Guztiok ditugu adimen hauek nahiz eta bizpahiru izan garatuenak ditugunak. Hori dela eta, *zailtasunak bakarrik kontuan izan gabe, gure ikasle bakoitzak garatuen dituen adimenak identifikatzen saiatzen gara.*

Orain arte aipatu dugun guztiak, adimen desberdinak kontuan hartuz, metodologia egokiak Aurrera eramaten laguntzen digu, eta eguneroko martxa aldatzera bultzatzen gaitu, bai geletan baita geletatik kanpo ere.